XX. Leitzako TALO EGUNA (irailaren 14ean):

Talo usaina eta herri kirolak, Mendialdeko azoka ibiltariarekin bat eginez

Igande honetan, irailak 14, Leitzak, ekitaldi esanguratsuenetariko bat hartuko du berriro: Talo Eguna. Honekin, 20 dira Leitzako Udalak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak sustatutako ekitaldi honen edizioak.

Iaz bezala, Talo Egunak Mendialdeko Azoka Ibiltariaren edizio berri batekin (seigarrena) bat eginen du, nekazaritzako elikagaien eta artisautzako produktuen aukera zabala eskainiz. Jakina, horietako batzuk taloari oso lotuta daude, hala nola Idiazabal gazta, txistorra edo txokolatea.

Produktu horiek, gehienetan, Mendialdeko ustiategi txikietan egiten dira. Eta hain zuzen ere, ezaguna denez, baserri-giroko lan tradizionalek zaletasun handia dute Leitzaldean zeinetan kirol-erronken isla bizia den. Horregatik, Talo Egunak aurten erakustaldi ikusgarri bat eskainiko du: orga erakustaldia.

Oraingo honetan, talo tailerra eta orga erakustaldiaz izateaz gain, goizean zehar Emakumeen Pilota Txapelketa izanen da. Arratsaldean berriz, lehen mailako gomazko partida izanen da, jardunaldiari amaiera emanez.

Talogileen postuak eta azokakoak 10:30etik aurrera irekiko dira

Beti bezala, talogileek goizeko 10:30ean emanen diote hasiera jai-egunari. Bertan Leitzako "**Saralegi Taloak**" eta **"Saldiasko Talogileak**" izanen dira. Biek leitzarrei eta bisitariei talo-aukera aparta eskainiko diete (gazta, txistorra, txokolatea, gulak, hirugiharra, onddoak, etab.), "hamaiketakoa" behar den moduan egin dezaten.

Aldi berean, gainontzeko postuak irekiko dira. Horrela, taloa protagonista izan arren, tokiko elikagaiek eta eskulanek ere leku berezia izango dute, Mendialdeako lehen sektorea eta artisautza goraipatuz eta aldarrikatuz.

Talo tailerra.

Tradizioa gal ez dadin eta behar bezala transmititu dadin, **talo tailer** bat egonen da taloak egiten ikasteko eta, ondoren, ikasitakoa etxean erakusteko aukera izateko.

Tailerra udaletxeko karrapean (behealdean) eginen da, eta ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea. Izan ere, animatzen den pertsona orok gerturatzeko eta parte hartzeko aukera izanen du, jendearen kopurua eta iristeko ordena errespetatuz, jakina.

Orga erakustaldia: tradizioa, trebezia eta komunitate-espiritua

Plaza izango da orga erakustaldi bitxi honen eszenatokia, non tradizioa, gaitasun fisikoa eta familia osoarentzako dibertsioa uztartuko diren. Joko honetan orga edo gurdi bati birak eman behar zaizkio, atzeko aldetik hartuz eta gurpilek lurra jo gabe. Gurdiaren endaitza lurreko puntu jakin batean egongo da lotua. Kirolariak ia 200 kiloko gurdiari ematen dizkio bira.

Hori guztia 12:00etatik aurrera izanen da eta, honekin, talogileen talo gozoekin eta bertako ekoizleen produktuen eskaintza anitzarekin, amaiera emanen zaio goizeko saioari.

Emakumezkoen pilotaren V.txapelketa

Talo eguneko ohiko herri kirolen jarduerez gain, oraingoan aukera izanen dugu Nafarroako Foru Komunitateko Emakumezkoen Pilota Txapelketaren V. edizioaz gozatzeko, Nafarroako Pilota Federazioak antolatua. Goizeko 10:00etan kategori bajukoak hasiko dira eta ondoren 10:30etan Txapelketa. Herriko frontoian izanen da.

Arratsaldeko 18:00etan jaiaren arreta gunea pilotalekuaren inguruan kokatuko da: Lehen mailako paleta gomazko partida eta beste bi esku-huska izanen dira.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria: Leitzaren txanda

Leitzako Udalak, ekitaldi hau aprobetxatuz, Mendialdeko Azoka Ibiltaria antolatu du. Guztira, **29 postu egonen dira Leitzako plazan**. Nekazaritzako elikagaien 15 postu: gazta, taloa, patea, haragia, arrautzak, artisau-garagardoa, sagar zukuak eta konpotak, eztia etab. Eskaintza honi, eskualdeko artisauen 14 artisautza postu gehitu behar zaizkio: zura, zeramika, metala, ehungintza, etab.

Aurtengo azkeneko feria Azaroaren 2an Jauntsarats (Basaburuan) Gaztain Egunarekin batera izanen dela gogoratzen dugu.

Modu jasangarri eta arduratsuan egindako tokiko produkturik onenen eskaintza izanen dugu Leitzan, zonaldeko lehengaien erabilera bereziki baloratzen duena. Azoka honen bidez, gainera, landa-eremuko ingurumenarekin, aisiarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin arduraz jokatzen duen kontsumoa sustatu nahi da.

Azokaren jende-aurreko ordutegia 11:00etatik 14:30era izanen da.

Gero eta jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa den ekitaldi baten alde

Beste ekintzetan bezala, "**ZABORRA O"** mezua zabaldu nahi dugu. Datorren igandean, hilak 14, jendeari eskatu nahi diogu zakarrontziak erabil ditzatela eta azokako eremuan hondakinik ez dezatela utzi. Gero eta ekitaldi jasangarriagoak bultzatzea da helburua. Halaber, irisgarritasunari eta inklusibitateari dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Mugikortasun Urriko Pertsonentzako Aparkalekua (MUP)**. "Herri Aretoa" eraikinaren ondoan, herriko plazatik oso gertu)
- **Komun egokituak**: Herri aretoan.
- **Programa eta komunizaio (prentsa oharra eta Sareak) irisgarriak**
- **"Zaborra O"**: zaborrontziak jarriko dira (koloreen arabera bereiziak), betiere espazio garbi eta osasungarria izateko helburuarekin ("Zaborra 0"), eta hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena sustatuko da.
- **Paper berziklatuan inprimatutako seinaleztapen-kartelak**
- **Atseden-guneak**
- **Mugikortasuna jasangarriago izateko kotxeak partekatzea proposatzen dugu.**

Esteka honetan, ekitaldian izango diren zerbitzuen, leku interesgarrien, programaren eta abarren zerrenda zehazten da mapa batean: https://labur.eus/c4QQf

Bideoa: https://youtube.com/shorts/n7v3C0dfcMU

Informazio gehiago: www.plazaola.eus

Leitzako Udalak eta Plazaolako Partzuergo Turistikoak antolatzen dute.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du.

Leitza, 2025ko abuztuaren 29a